



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko otsailaren 4a

5. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofiziala sortzen duena (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, agur zibilak arautzen dituen. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

—Defentsa Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko esparru-hitzarmena, kultura, prestakuntza eta gizarte arloko jarduerak egiteko (10. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, ekonomia arloko politika orokorrari buruzkoa, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak egin (14. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Europar Batasunari eska diezaion bertan behera uzteko Israelekin Elkartzeko Akordioa eta enbaxadoreari kontsulta egitera dei diezaion, Espainiatik alde egin dezan gonbit egite aldera Gazaren aurkako erasoak eta inbasioak dirauen bitartean. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (15. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua, Industria Ministerioa eta Red Eléctrica Española enpresa premiatzen dira lehentasuna eman diezaioten Estellerrian azpiestazio elektriko bat jartzeari. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko aldaketak egin ditzan urtarriaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuan. Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztu du (17. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasunen bat duten pertsonentzako sukaldaritzako eskolak garatzeko eta hedatzeko plan bat aurkez dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekin lankidetzan jardun dezan nerabeen nahi gabeko haurdunaldiei eta sexu-transmisiozko gaixotasunei aurrea hartzeko kanpian, zeina Osasun eta Kontsumo Ministerioak abiatu baitu. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri taxutu eta antola ditzan, irakasleen hasierako prestakuntza bat etortze aldera egungo nahiz etorkizuneko hezkuntza sistemaren eta gizartearen beharrezanekin eta erronkekin. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legezko ekintzak eta neurriak abian jar ditzan 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloan unibertsaltasuna, doakotasuna, kudeaketa eta Hezkuntza Departamentuaren finantzaketa bermatzeko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (23. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte-intereseko entitateen kontratazioa errazteko formulak aplikatu ditzan, ezgaitasunen bat duten pertsonen nahiz gizarte bazterkeriako egoeran dauden pertsonen enplegua mantentze aldera. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (24. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta beste zenbait erakunde premiatzen ditu aintzat har ditzaten enpleguko zentro bereziak kontratazioak egiterakoan. Ana Figueras Castellano andreak eta Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztu dute (26. or.).
- Adierazpen instituzionala, Kolonbiako mugimendu indigenen eta sindikalen aurkako errepresioari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (27. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofiziala sortzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2009ko urtarrilaren 19an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofiziala sortzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofiziala sortzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun baliouduneko epea hasiko da eta 2009ko otsailaren 26ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proiektua, Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofiziala sortzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Espainiako Konstituzioak, 36. artikuluan, ezartzen du lanbide elkargoen araubide juridikoaren berezko ezaugarriak eta tituludun lanbideetako jarduna lege bidez arautuko direla. Era berean, adierazten du elkargoen barne-egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan behar dutela.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.26 artikulua ezartzen duenaren arabera, Nafarroak eskumen eskusiboa du lanbide elkargoen arloan eta tituludun lanbideetako jardunaren gaineko gaietan, indarreko legediari jarraikiz.

Eskumen horiek erabiliz, Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legea onetsi zen. Horren erregelamendu-garapena abenduaren 18ko 375/2000 Foru Dekretuaren bidez egin zen, izan ere foru dekretu horrek Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Legea garatzeko Erregelamendua onetsi zuen eta bertan ezarri ziren lanbide elkargo bat sortzeko betebeharrak eta prozedura.

Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legearen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean lanbide elkargoak foru lege bidez sortuko dira eta, horretarako, beharrezkoa izanen da, sortu nahi den elkargoari dagokion titulazio ofiziala izanik, Nafarroan helbideraturik dauden profesionalen gehiengoak eskatzea.

Aipatutako legeko agindu horretan xedatutakoarekin bat, eta kontuan harturik Nafarroako Foru Komunitateak lanbide elkargoen arloan dituen eskumenak, Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Lanbide Elkarteak (APESNA), talde profesional horrek Nafarroako Foru Komunitatean duen ordezkaria

baita, Nafarroako Gobernuari eskatu dio Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofiziala sortzea.

Gizarte Hezkuntzaren Diplomaturaren unibertsitate-titulu ofiziala eta hura lortzeko ikasketa planen jarraibide orokorrak abuztuaren 30eko 1420/1991 Errege Dekretuaren bidez ezarri ziren, eta hari esker lanbide horrek irakaskuntza eta prestakuntza arloko onarpena lortu zuen. Gizarte hezkuntza funtzio sozial garrantzitsua duen lanbidea da, gizartean izandako aldaketa azkarraren eta globalizazioaren ondorioz gizartearen, hezkuntzaren, kulturaren eta aisialdiaren arloan dauden behar berriei erantzuna emateko sortu dena, hezkuntza sistema formaletik eta oinarritzko eskolatze prozesutik haratago doazen berariazko jarduketan, zerbitzuen eta proiektuen bitartez.

Gizarte hezkuntzak, gainera, toki nabarmena hartzen du gaur egun aurrera eraman nahi diren gizarte eta hezkuntza politiken programazioan, bereziki administrazio publikoekin batera garatzen diren jardueretan. Jarduera horiek estatu demokratiko, sozial eta solidario baten printzipio konstituzionalak aplikatzeko helburua dute. Aipatzekoa da, alde horretatik, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak arlo sozio-educatiboan jardun eta sakontzeko duen borondatea.

Gizarte hezitzaileak arlo sozio-educatiboaren profesionalak dira, pertsonen, taldeen eta kolektiboen dinamizazioan espezializatuak daudenak, gizarte eta kultur garapen prozesuak burutzeko.

Haien jarduketak orotarikoa izan behar du, eta norbanakoengan, taldeengan edo komunitateetan esku har dezakete, populazioaren edozein sektoretan. Esku-hartze sozio-educatiboa egiten dute, maila formalean, ez-formalean eta informalean, gizarte arazo handiak dituzten pertsonekin eta/edo taldeekin; izan ere, arazo horien ondorioz gainerako bizilagunen aurrean bereziki kalteberak direlako eta nola edo hala gizarte bizitzatik baztertuta daudelako. Horregatik, profesional horien eguneroko lan sozio-educatiboak halako printzipio etikoen eta halako jokabide deontologikoaren arabera izan behar du, errespetuz eta erantzukizunez jokatzeko eta kolektibo horien funtsezko eskubideak babesteko.

Nolanahi ere, titulua sortu aurretik eta ikasketak Nafarroan ezarri aurretik (Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren bidez, 2002. urtean Iruñean eta 2003. urtean Tuteran), baziren beste profesional batzuk Nafarroan gizarte hezitzaileen lana egiten zutenak, eta haiei ere elkargotan sartzeko aukera eman behar zaie, hirugarren xedapen iragankorraren arabera.

Gizarte hezitzaileen figura ongi egituratu eta mugatuko bada, beharrezkoa da gizartean eta lege esparruan halako aitorten eta baimen bat lortzea. Horri dagokionez, interesdunek, APESNA-Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Lanbide Elkartek ordezkaturik, adierazi dute gizarte hezitzailearen lanbidea Nafarroako Foru Komunitatean elkargoa duen lanbide bat bihurtuz gero, profesional horiek beren interesak begiratu eta lanbide jarduna antolatu ahal izateko erakunde bat izanen luketela, eta hori berme moduko bat izanen da esku-hartzearen xede diren gizarte-sektore guztientzat.

Adierazitakoaren ondorioz, eta kontuan harturik Nafarroan Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizial bat izateko interes publikoko arrazoiak badirela, foru lege honen bidez lanbide elkargo hori sortzen da. Horrenbestez, Nafarroan lanbide horretan jarduteko, ezinbesteko baldintza izanen da elkargoko kide izatea, non ez den frogatzen lanbide bereko beste elkargo bateko kidea dela beste lurralde eremu batean.

1. artikulua. Foru legearen helburua.

Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofiziala sortzen da.

2. artikulua. Lanbide elkargoaren izaera juridikoa.

1. Lanbide elkargoa zuzenbide publikoko korporazio bat da, lege honek indarra hartzen duenetik aurrera berezko nortasun juridikoa duena, eta gobernu organoak eratzen dituenetik aurrera, bere helburuak betetzeko eta bere eginkizunei ekiteko ahalmen osoa izanen duena.

2. Lanbide elkartek barne-egitura eta funtzionamendu demokratikoa behar du eta haren jarduketetan arau hauei segitu behar die: elkargoaren estatutuak, foru lege honetako xedapenak, Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legea, lege hori garatzeko araudia eta lanbide elkargoen arloan estatuan dagoen oinarritzko araudia.

3. artikulua. Lurralde eremua.

Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialen lurralde eremua Nafarroako Foru Komunitateko lurraldea da.

4. artikulua. Pertsona eremua.

1. Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialean sar daitezke abuztuaren 30eko 1420/1991 Errege Dekretuan ezarritako Gizarte Hezitzaileen Diplomaturaren ikasketa titulu ofiziala dutenak. Errege dekretu horren bidez, Gizarte Hezkuntzaren Diplomaturaren unibertsitate-titulu ofiziala eta hura edo baliozkotua dagoen antzeko titulu bat lor-

tzeko ikasketa planen jarraibide orokorrak ezarri ziren.

2. Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialeko kide izan daitezke, orobat, foru lege honen hirugarren xedapen iragankorrean aipatzen diren egoeretakoa batean dauden pertsonak, behar den gaikuntza lortu ondoren betiere.

5. artikulua. Kidetu beharra.

Nafarroako Foru Komunitatean lanbide honetan jarduteko, ezinbestekoa izanzen da aurretik Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialeko kidea izatea, deusetan galarazi gabe Nafarroako lanbide elkargoei buruzko legedian eta estatuko oinarrizko legedian ezarritakoa.

6. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarekiko harremanak.

Alderdi korporatiboei eta erakundeekiko harremanei dagokienez, Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialak lanbide elkargoen arloan eskumena duen departamentuaren bitartez bideratuko ditu Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarekiko harremanak. Lanbideari berari dagozkion alderdiei buruzko gaietarako, berriz, arlo horren eskumena duen departamentuaren bitartez bideratuko da harremana.

Xedapen gehigarri bakarra. Lanbide Elkargoen Kontseiluaren eginkizunak.

Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofiziala, Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoa hartzen duenez, orokorra da, eta, horrenbestez, bidezkoa denean, Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legeak Nafarroako Lanbide Elkargoen Kontseiluentzat finkatzen dituen eginkizunak bere gain hartuko ditu.

Lehen xedapen iragankorra. Kudeaketa Batzordea eta Gaikuntzetarako Batzordea.

1. Kudeaketa Batzorde bat osatuko da, APESNA-Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Lanbide Elkarteko hamabi kidek osatua, elkargoaren behin-behineko gobernu organo gisa aritzeko, foru lege honen araubide iragankorrean ezarri bezala.

Foru lege honek indarra hartu ondoko sei hilabeteko epean, Kudeaketa Batzordeak Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialaren estatutuak onetsi beharko ditu, non osoko bilkuretako organoaren deialdiak egiteko modua eta elkargoaren batzar eratzaillearen funtzionamendua arautuko baitira. Batzar eratzaille horretan parte hartzeko deia foru lege honen 4. artikuluan edo hirugarren xedapen iragankorrean aipatzen den titulazioaren bat dutenei egin beharko zaie.

2. Behin-behineko estatutuetan elkargoaren batzar eratzaillearen araubidea finkatuko da, deialdia egiteko modua eta epeak, eta bilkura egiteko prozedura ezarri.

Deialdia ahalik eta jende gehienengana iristen dela bermatuko da. Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitatean gehien zabalitzen diren bi egunkarietan argitaratu beharko da, hoguei egun lehenago gutxienez.

3. Xedapen honen 1. atalean aipatutako Kudeaketa Batzordea Gaikuntzetarako Batzorde bilakatu da, Nafarroan Gizarte Hezkuntzako ikasketak ematen dituzten UHUN-Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren Iruñeko eta Tuterako zentroetatik ordezkari bana eta Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuko bi ordezkari gehituta. Batzorde horrek bere funtzionamendu arauak ezarriko ditu eta, bidezkoa denean, elkargoaren batzar eratzaillearen parte hartzeko asmoz elkargoan sartzea eskatzen duten profesionali gaikuntza emateaz arduratuko da, hori guztia deusetan galarazi gabe batzar eratzaillearen errekurtsioa jartzeko aukera batzordeak gaikuntzei buruz hartzen dituen erabakien aurka.

Bigarren xedapen iragankorra. Batzar eratzaillea egiteko deialdia eta estatutuak onesteko prozedura.

1. Batzar eratzaillea egiteko deialdia gehienez hilabeteko epean egin beharko da, hirugarren xedapen iragankorrean gaikuntzak emateko prozedura bukatzen denetik hasita, lehenengo xedapen iragankorreko 3. atalean aipatutako Gaikuntzetarako Batzordeak behar diren profesionali gaikuntza eman ondoren.

Batzar eratzaillea egiteko deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitatean gehien zabalitzen diren bi egunkarietan argitaratu beharko da, hoguei egun lehenago gutxienez.

2. Batzar eratzailleak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Elkargoaren behin betiko estatutuak onestea.

b) Elkargoko gobernu organoetako kideak hautatzea.

3. Batzar eratzailleak onesten dituen Elkargoaren Estatutuak lanbide elkargoen arloan eskumena duen departamentuari igorriko zaizkio, departamentuko organo eskudunak haien legezketasuna aitortu ondoren, Nafarroako Lanbide Elkargoen eta Lanbide Elkargoen Kontseiluaren Erregistroan inskribatzeko eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argita-

ratzeko agindua eman dezan. Estatutu horiekin batera, batzar eratzaillearen aktaren ziurtagiria bidali beharko da.

Hirugarren xedapen iragankorra. Lanbide gaikuntza lortzeko modua.

Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialean sartzeko ahalakoa dira, gizarte hezkuntzaren arloan lan eginda, ondotik aipatzen diren egoerak batean dauden profesionalak, behar diren frogagiriak aurkeztuz lanbide gaikuntza eskatzen baldin badute foru lege honek indarra hartzen duenetik hamabi hilabeteko epean:

1. Lizentziatura edo diplomatura mailako unibertsitate-prestakuntza izatea, 2001-2002 baino lehenago hasia, eta orobat, 2005eko urtarrilaren 1erako, gizarte hezkuntzari berez dagozkion lan eta eginkizunetan hiru urteko edo gehiagoko lanbide esperientzia izatea, jarduera nagusia edo bakarra izanda eta behar bezala frogatuta.

2. Lanbide Heziketako bigarren mailako berriazko ikasketak izatea gizarte hezkuntzaren arloan, hiru urtekoak gutxienez, 2001-2002 ikasturtea baino lehen hasiak, eta horrez gainera, 2005eko urtarrilaren 1erako, hiru urteko lan esperientzia izatea gizarte hezkuntzari berez dagozkion lan eta eginkizunetan, jarduera nagusia edo bakarra izanda eta behar bezala frogatuta.

3. Foru lege honek indarra hartu baino lehen, hamahiru urteko lan esperientzia izatea gizarte hezkuntzari berez dagozkion lan eta eginkizunetan, dedikazio osoan edo jarduera nagusia izanda eta behar bezala frogatuta.

Azken xedapen bakarra. Indarraldia.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, agur zibilak arautzen dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Agur zibilak arautzen dituen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agur zibilak arautzen dituen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, agur zibilak arautzen dituen

ZIOEN AZALPENA

Gizarteak oro har dakienez, Estatuak, akonfessionaltasunaz gain, gizabanakoen nahiz erkidegoen ideologia-, erlijio eta kultu-askatasuna bermatu behar ditu, muga bakarra izaki haien agerraldietan legeak babesten duen ordena publikoa gordetzeko beharrezkoa dena.

Ezaguna da, orobat, gure gizartearen ideologia-, erlijio- nahiz kultura-aniztasuna, gurea gizarte anitza baita, etengabe aldatzen ari dena ohitura eta gizarte-ekintzen adierazpenei dagokienez.

Hiletak edo heriotza-omenaldi zibilak egiten dira, hain zuzen ere, gizarteak premia duelako hautu hori egin duten herritarrei zeremonia duin

eta pertsonal bat eskaintzeko, hildakoak nahiz haren senideek edo horiek denek bizitza nola ulertzen duten, halaxe.

Adituen arabera, gaur egun % 10 eta % 20 bitartekoa da hurkoak gisa horretan agurtu nahi dituztenen kopurua, eta hurrengo urteetan % 40ra iritsiko omen da kopuru hori.

Gure gizartean elkarrekin bizi diren erlijioek badituzte nork bere hildakoak agurtzeko ospakizun liturgikoetarako tokiak edo tenpluak, baina gure hiriek eta udalek ez dituzte atondu toki egokiak, egin ahal izan daitezen ekitaldi zibilak, gure herritarrek gero eta gehiago eskatzen duten beharrizan sozial bati erantzuteko ezinbestekoak direnak.

Foru lege honek xede du, hortaz, udal-lokalen sorrera eta ekitaldi zibilak baimendu eta egiteko prozedura arautzea; hartara, senideek, lagunek nahiz gizarte zibila osatzen duten erakundeek eta entitateek omenaldia edo agurra egin ahalko diete euren hildakoei, erkidegoari eginiko ekarpenak edo haien balio etiko edo/eta gizatiarrak aintzates-tearren.

I. KAPITULUA **Udal lokalak**

1. artikulua.

a) 3.000 biztanletik gorako udalek udalaren titulartasuneko lokal bat sortuko dute, hildakoak agurtu eta omentzeko ekitaldi zibilak egin ahal izan daitezen.

b) Arestiko letran aipatzen diren erabileretarako behar bezala egokituta egonen dira lokalak.

c) Dagokion tasa ordaintzea exijituko da lokalak erabiltzeagatik.

II. KAPITULUA **Baimena emateko prozedura**

2. artikulua.

Udalen auto-antolaketaerako eskumenak ezertan galarazi gabe, hurrengo artikuluetan xedatuari

jarraikiz arautuko da hiletak edo heriotza-omenaldi zibilak egiteko lokalen baimena eta erabilera.

3. artikulua.

Senideak edo eskabidea aurkezten duen pertsonak edo entitateak –ehortetze eta beilategiak, gaur egun egiten den moduan–udalaren erregistrora beharreko dokumentazioa jaso eta gero, alkateak edo zinegotziak edo/eta hark eskuordetutako funtzionarioak hiletetarako edo omenaldi zibiletarako erreserbatutako lokalak erabiltzeko baimena eman ahalko dute.

4. artikulua.

Hiletak edo omenaldi zibilak egiteko eskabideak alkateari zuzenduko zaizkio, eta udaletxean aurkeztu dira, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako edozein modu baliatuta aurkeztu ere.

Hiletak edo omenaldi zibilak egiteko eskabideak inguruabarrek eskatzen duten berehalakotasun-printzipioari jarraikiz izapidetuko dira, eta pertsona eskudunari igorriko zaizkio, hark ebatz dezan.

5. artikulua.

Eskabideak idatziz aurkeztuko dira, behar bezala sinatuta, alkateari zuzenduko zaizkio eta ondokoak jasoko dituzte:

a) Eskabidearen data eta tokia, eta baimena eskatzen duen pertsonaren edo entitatearen izena, abizenak eta helbidea.

b) Hildako pertsonaren izen-abizenak.

c) Hileta edo omenaldi zibila egiteko nahiago den eguna eta ordua.

d) Ekitaldiaren azalpen laburra eta, kasu bada, erabili nahi den materiala (megafonia eta abar).

6. artikulua.

Eskabideak ez baldin baditu betetzen aurreko artikuluan ezarritako baldintzak, interesdunari eskatuko zaio okerra albait arinen –ekitaldia baino lehen edo ondoren– zuzen dezan edo aginduzko agiriak aurkez ditzan.

7. artikulua.

Hileta edo omenaldi zibilaren eguna eta ordua alkateak, zinegotziak edo/eta hark eskuordetutako funtzionarioak ezarriko du, kudeaketa egitea agindu zaion departamentuak horretarako abiatutako espedientearen ondotik.

Eskatzaileek egunari eta orduari buruz adierazitako lehentasuna errespetatuko da, eta egun eta ordu jakin baterako eskabide bat baino gehiago baldin badago, eskabideak aurkeztu ziren hurrenkera gordeko da. Hurrenkera hori soilik aldatu ahalko da baldin eta aparteko beharrizan larriko inguruabar objektiboak gertatzen badira. Edozein kasutan, aparteko beharrizan larri hori behar bezala arrazoitu beharko da, eta bere eskubidea ukituta ikusi dutenei entzun beharko zaie.

8. artikulua.

Hiletak edo omenaldi zibilak astelehenetik igandera bitarte eginen dira, eta, horretarako, behar diren udal-baliabideak gaituko dira.

9. artikulua.

Hiletara edo omenaldi zibilera udal funtzionario bat edo lan-kontratadun bat joanen da, ekitaldia bermatze aldera. Ezin baldin bada halakorik joan, ekitaldia baimentzeko ebazpenean eskatzaileari edo beste pertsona arduradun bati eskuordetu ahalko zaio eginkizun hori.

III. KAPITULUA

Eskabideak eta betebeharrak

10. artikulua.

Eskabideak foru lege honetan ezarritako baldintzak betetzen baditu, ekitaldia baimendu beharko da, ezertan ere galarazi gabe ekitaldiaren eguna eta ordua eskabide-pilaketaren arabera ezartzea.

11. artikulua.

Ekitaldien seriotasunerako egokituta egonen da ekitaldia eginen den lokala. Halere, senideek edo lagunek lokala era berezian apaindu edo egokitu nahi badute, udal arduradunari garaiz jakinarazi beharko diote, bidezko dena ebatz dezan hark, betiere tokiaren harmonia eta ezaugarriak errespetatuz eta horren ondorioz sortzen diren gastuak haiek ordainduta.

Eskatzaileak eta bertaratutakoek bermatuko dute ekitaldia baimenaren xedeari egokituko zaio, eta lokalaren barruan ezin izanen dute ezer egin lokalaren kaltetan.

Xedapen gehigarria.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio udalekin batera finantzatzeko programak onetsi dezan, udal lokalak sortze aldera.

Xedapen iragankorra.

Ukitutako udalek foru lege honetan aipatzen diren udal lokalak sortu eta egokitu beharko dituzte si hilabeteko epean.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

D saila:
HITZARMENAK

**Defentsa Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko
esparru-hitzarmena, kultura, prestakuntza eta gizarte arloko jardue-
rak egiteko.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko 1982ko abuztuaren 10eko Lege Organikoaren 26.b) artikulua xedatutakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak, 2008ko urriaren 27an hartutako erabakiaren bidez, Defentsa Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko esparru-hitzarmenaren proiektu bat, kultura, prestakuntza eta gizarte arloko jarduerak egiteko, igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 163. artikuluan eta berarekin bat datozen artikuluetan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Aipatu esparru-hitzarmena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Xedatzea esparru-hitzarmenaren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egingen dela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 164. artikulua ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Defentsa Ministerioaren eta
Nafarroako Foru Komunitatearen
arteko esparru-hitzarmena,
kultura, prestakuntza eta gizarte
arloko jarduerak egiteko**

.....(e)n, 2009koaren ...(e)an

BILDURIK

Alde batetik, Carme Chacón Piqueras Defentsa ministro andrea, Defentsa Ministerioaren izenean eta hori ordezkatzuz.

Bestetik, Nafarroako Gobernuak lehendakari jauna, Nafarroako Foru Komunitatearen izenean eta hori ordezkatzuz.

Bi aldeek, daukaten ordezkarietatik baliaturik, elkarri aitortzen diote aritu eta hitzartzeko gaitasuna eta

AZALTZEN DUTE

Nafarroako Foru Komunitateak eta Defentsa Ministerioak unitate, zentro eta erakundeek (UZE, hemendik aurrera) elkarlanean aritu direla azken urte hauetan, prestakuntza, gizarte eta kultura arloko jarduerak askotan, prestakuntza integrala eta langile militarren gizarte eta lan arloko igoerarako aukerak hobetzeko.

Jarduerak horiek 1999ko urriaren 20ko esparru hitzarmen bat sinatzean zehaztu zirela. Hitzarmen horretan bi aldeek lankidetzarako zituzten asmoak batu ziren.

Bi aldeek elkarrendako interesgarritzat jotzen dutela Indar Armatuak osatzen dituzten gizarte eta lan igoeran eragina duten jarduerak guztietan elkarlanean aritzen segitzea eta Nafarroako gizartearekiko harremanak handitzen eta segurtasunaren eta defentsaren balioak zabaltzen, elkartasunaren, elkarrenganako begirunearen eta bakearen mantentzearen arloan.

1999az geroztik legeetan aldaketa nabarmenak gertatu direla, aurreko esparru hitzarmena ukitzen dutenak, hala nola: nahitaezko soldadutza bukatzea, martxoaren 9ko 247/2001 Errege Dekretuaren arabera, eta Soldaduei eta Marinelei buruzko apirilaren 24ko 8/2006 Lege berriak eta Karrera Militarrari buruzko azaroaren 19ko 39/2007 Legeak indarra hartzea. Hori dela-eta, komeni da beste esparru hitzarmen bat idaztea, indarra duena ordeztzen duena.

Defentsa Nazionalari buruzko azaroaren 17ko 5/2005 Lege Organikoaren 31. artikulua xedatzen duenez, Defentsa Ministerioak defentsa kulturaren garapena sustatuko du, Espainiako gizarteak Indar Armatuak nazioaren interesak gordetzeko historia eta elkartasunezko ahalegin eragingarriak ezagutu eta baloratzeko eta harekin bat egiteko. Halaber, gainerako agintari publikoek helburu hori lortzen lagunduko dute.

1/2004 Defentsa Nazionalerako Zuzentarauak, defentsa politika garatzeko jarraibideen artean, Espainiako esparruan, hauxe xedatzen du bestelako erakundeekiko elkarlanari dagokionez: "Espainiako gizarteak segurtasunari eta defentsari buruz duen kultura maila igotzea. Horretarako, Gobernuak, Defentsa Ministerioak proposaturik eta Estatu-ko bestelako erakundeekin elkarlanean, defentsaren eginkizunak eta defendatu beharra bultzatuko ditu, gizarteak gehiago parte har dezan eta Espainia defendatzeko eskubidea eta eginbeharra gauzatzeko, Konstituzioak espainolei agindu bezala."

Defentsa Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen duen ekainaren 25eko 1551/2004 Errege Dekretuaren 16.1 artikulua xedatzen duenez, Defentsaren Erakundeekiko Harremanetarako Zuzendaritza Nagusiari dagokio departamentuaren politika kulturala planifikatu eta garatzea eta harexen esku uzten ditu defentsa nazionalaren kontzientzia sustatu, zabaldu eta sustatzeko politika bultzatzeko orotariko eginkizunak, Espainiako Ikerketa Estrategikoen Institutuaren bidez. Horretarako, haren egitekoa da esleituriko eginkizunen ondoriozko helburu berak dituzten instituzio eta erakundeekin batera eginiko jarduketak indartzea.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 30. artikuluaekin eta Nafarroako Gobernuari eta haren lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 30.1 artikuluaekin bat, horrexek du ordezkartzarik handiena Foru Komunitatean. Hori nabarmena da bereziki Foru Komunitatearen eta bestelako erakundeen arteko harremanetan, Indar Armatuarekin eta Defentsa Ministerioarekin, kasu honetan.

Horrenbestez, Defentsa Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak esparru hitzarmen hau izenpe-zea erabaki dute, klausula hauei jarraituz:

KLAUSULAK

LEHENA.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Defentsa Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzarako esparrua ezartzea, batera berriazko jarduketak burutzeko, bai arian daudenak, bai geroan bi aldeek interesgarritzat jo litzaketanak, bake, segurtasun eta defentsaren kultura zabaldu eta sustatzearen.

BIGARRENA.- LANKIDETZA JARDUERAK

Lankidetzaren jarduerak ardatz hauek izanen dituzte:

1. Langile militar osagarriari, soldaduei eta marinelei beren prestakuntza pertsonal eta profesionala hobetzen duten jarduerak eskuratzeko erraztasunak ematea, gero bizitza zibileko lanetan hasten laguntzeko. Halaber, karrekoko langile militarrei eta langile zibilei bide ematea beren proiektu pertsonalak hobetzeko jardueretarako, bizitzari, lan igorriari eta gizarteratzeari dagokienez.

2. Nafarroako errealitate historiko, sozial eta kulturalaren osagaiak ezagutarazi eta zabaltea eta bestelako autonomia erkidegoekiko harremanak ezagutzen laguntzea.

3. Segurtasun, bake, defentsa eta Indar Armatuaren eginkizunei loturiko gaiak ezagutarazi eta zabaltea, nazioarteko elkartasunaren esparruan, liskarrei aurrea hartu eta haiek konpontzeko elkarrekiko lana sustatzeko gogoeta eta eztabaida gune irankorrak bultzatuz.

4. Nafarroako ondare historiko militar higigarri eta higiezina zabaldu eta berreskuratzen laguntzea.

5. Nafarroako instalazio militar historikoen gaur egungo erabilerak bultzatzea, bereziki segurtasun, defentsa, bakearen mantentze eta elkarrekiko intereseko balioei gaietan, indarra duten legeen barruan.

6. Bi aldeendako interesgarriak diren bestelako jardueretan parte hartzea, bi aldeek ahal duten ber, hitzarmen honen xedeen barruan.

HIRUGARRENA.- JARDUTEKO ARAUAK.

Esparru hitzarmen hau garatzeko ematen diren itun guztietan betiere segurtasun militarri buruzko arautegia eta aplikatzekoa den beste edozein arautegi errespetatuko dira, espresuki hitzarmen-tzen aipatuko dena.

LAUGARRENA.- KONTROLERAKO ETA JARRAIPENERAKO NEURRIAK

Jarraipenerako Batzorde Mistoak sortu da. Egin-kizun hauek izanen ditu: komenigarritzat jotzen dituen programa eta gaiak proposatzea, hitzarmen hau ulertu eta betetzerakoan sor litezkeen arazoak konpontzea, aplikaziorako gauzatzekoak diren jardueren jarraipena egitea eta hitzarmen honen ondoriozko erabaki berariazkoen barruan garatu beharreko ekintzen emaitzak ebaluatzea.

Jarraipenerako Batzorde Mistoak kide hauek izanen ditu:

A) Nafarroako Gobernuaren aldetik

– Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari eta Gobernuaren eleduna

– Lehendakaritza zuzendari nagusia

– Erakundeekiko Harremanetarako zuzendari nagusia, koordinatzaile nagusia izanen dena

– Ondare zuzendari nagusia

– Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusia

– Kultura zuzendari nagusia

– Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailea

B) Defentsa Ministerioaren aldetik

– Defentsaren Erakundeekiko Harremanetarako Zuzendaritza Nagusiko Espainiako Ikerketa Estrategikoen Institutuko zuzendaria

– Erreklutamendurako eta Irakaskuntza Militararako Zuzendaritza Nagusiko Irakaskuntza Kudeatu eta Lanbidea garatzeko zuzendariorde nagusia

– Nafarroako komandante militarra edo haren ordezkaria

– Defentsak Nafarroan duen ordezkaria, koordinatzaile nagusia izanen dena

– Aitzoingo "América Nº 66" Mendiko Ehiztariaren Erregimenduko koronela

– Errege Bardeako Tiro Poligonoko burua

Jarraipenerako Batzorde Mistoak, bi aldeak ados daudela, kide gehiago biltzen ahalko ditu, hitzarmena betetzeko egoki bada, gaurko testuan aipatzen diren orotariko gai edo kontuak aztertzeke edo bileraren batean haien aldi baterako partaidetza behar duten berariazko gaiak aztertzeke.

Halaber, Jarraipenerako Batzorde Mistoaren bileretan Nafarroako Gobernuak lehendakaria iza-

ten ahalko da buru edo bertako lehendakariorde-ren bat, eta Defentsa ministroa edo haren ordezkaria, gaiengatik hala komeni denean eta, betiere, egokitzat jotzen dutenean.

Jarraipenerako Batzorde Mistoak ohiko moduz urtean behin gutxienez bilduko da osoko bilkuran, burutzen ari diren programen emaitzak eta egoera ezagutarazteko eta komeni direnak proposatzeko eta aparteko moduz behar den bakoitzean. Urteko jardueren memoria idatziko da, hitzarmenaren helburuekin, eta ahalik eta zabalkunde handiena emanen zaio.

Jarraipenerako Batzorde Mistoaren erabakiak aho batez hartuko dira. Haien indarraldia eta beraiekin dakartzaten langile, baliabide eta diruak adieraziko dira. Bi aldeek nahitaez bete beharko dituzte erabaki haiek.

BOSGARRENA.- APLIKATZEKO DEN LEGE-RIA

Esparru hitzarmen honek izaera administrati-boa du. Hala ere, kasu honetan ez dira aplikatze-koak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea eta Kontratuei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea. Haatik, hitzarmen hau garatzeko beren ezaugarriengatik lege haien mende egon daitezkeen kontratuak izenpetzen ahalko dira.

Kasu horietan, kontratu horiek kontratuei buruzko lege haien aplikazio esparruaren mende egonen dira.

Eskuarki, interpretatzerakoan izan litezkeen zalantza eta hutsuneak konpontzeko, kontratuei buruzko lege horietan eta administrazioari buruzko gainerako legeetan ezarritako irizpideei jarraituko zaie.

Sor litezkeen liskar eta auziak konpontzeko aldeak Administrazioarekiko Auzien Ordena Jurisdikzionalaren mende gelditzen dira.

SEIGARRENA. - INDARRALDIA

Esparru hitzarmen honek sinatzen denean hartuko du indarra eta lau urterako iraunen du. Bi aldeak ados badaude, beste lau urtez luzatzen ahalko da.

Esparru hitzarmen honek indarra hartzen duenez geroztik, Nafarroako Foru Komunitateak eta Defentsa Ministerioak 1999ko urriaren 20an sinaturiko Esparru Hitzarmena-Orotariko Protokoloa indarririk gabe geldituko da.

ZAZPIGARRENA.- BUKAERA

Hona hemen hitzarmen hau bukatutzat emateko arrazoiak: bi aldeak ados egotea, helburua

lortzeko ustekabeko ezintasuna, ezarririko epea bukatzea, alde batek bertan behera uztea eta alde batek dagozkion konpromisoak ez betetzea.

Kasu horietan, aldeek idatziz elkarri jakinarazi beharko diote aipatu den gorabehera gertatu dela, hitzarmenaren bidezko harremana iraungitzeko, hilabete bat lehenago gutxienez.

Eta, adostasunaren adierazgarri, esparru hitzarmen hau ale bikoiztuan sinatzen dute, lehen aipatu den tokian eta egunean.

Defentsa Ministeriotik
Defentsa ministroa: Carme Chacón Piqueras

Nafarroako Foru Komunitatetik
Nafarroako Gobernuko
Lehendakaria: Miguel Sanz Sesma

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, ekonomia arloko politika orokorrari buruzkoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, ekonomia arloko politika orokorrari buruzkoa, jakin nahi baita zer helburu lortu nahi dituen Foru Gobernuak erakunde sozialak, ekonomikoak eta politikoak baztertzen dituenean krisi ekonomikoari aurre egiteko neurriak erabakitzerakoan.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Maiorga Ramirezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 181. artikularen eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Zioen azalpena

Krisialdi ekonomi batean gaude eta, horren aurrean, erakunde publikoek jardun behar dugu ikuspegi nahiko zabalarekin eta beharrezkoa den dinamismoarekin, aurre egiteko zenbait egoera honi, kasurik onenean, herritarren bizi kalitatearen okertzea ekarriko baitu, eta pertsona eta familia askoren bizi baldintzetarako ondorio dramatikoak ekar baititzake.

Zalantzarik gabe, egoera ekonomikoak eragina izango du zerbitzu publikoen kalitatean eta garapenean. Hori dela eta, alderdi politikoak behartuta gaude, gure erantzukizuna dela-eta, gure betiko desadostasun politikoak gainditzera eta elkarrekin aurre egitera, parte-hartzea eta lan-

kidetza oinarritzat hartuta, herritar guztiengan eta, bereziki, gizarte egoera okerrean dauden sektoreengan, eragina eta ondorioak izanen dituen egoera bati.

Gaur egungo Nafarroako Gobernuak orain arte abian jarritako tresna eta neurriei dagokienez, baztertu egin ditu, sistematikoki, arrazoirik gabe eta Nafarroako alderdi sozialistaren laguntzarekin, erkidego honetako esparru ekonomiko eta sozialeko zenbait erakunde (ANEL, ELA eta LAB, besteak beste), eta, bereziki, gaur egun Nafarroako Parlamentuko bigarren indar politikoa: Nafarroa Bai.

Nafarroako Gobernuko lehendakaria ez da gai izan legebiltzarrean ordezkariaren dute indar politikoko guztiarekin bilera-erronda bat egiteko, ordezkari kopuruaren arabera oposizioaren lehen indar Nafarroa Bai koaliziotik hasita. Are gehiago, Ekonomia eta Ogasun kontseilari Álvaro Mirandak, Parlamentuan eginiko hitzaldi batean onartu behar izan zuenean Nafarroa Bai alderdiarekin bilera bat egitea, berehala bilatu zuen aitzakia bat bilera bertan behera uzteko egin baino lehen, egun hartan bertan.

Estrategia baztertzaila horrek arduragabekeria erakusten du irakurketa sozial gero eta larriagoa duen errealitate ekonomiko kezkarriaren aurrean, zeinaren adierazgarri argienak diren langabeziari buruzko azken datuak, Nafarroan % 52,75 igo baitzen 2008an.

Egoera horren aurrean, eta ikusirik hurrengo hilabeteetan eta 2009an zehar okerrera egin dezakeela, ezinbestekoa da erakundeek bideak jartzea, ahalik eta informazio eta lankidetzaren gehien jasotzeko arlo horretako erabakiak hartzen parte hartzen duten guztien aldetik. Hori dela eta:

“Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Ekonomia arloko politika orokorrari buruzko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari”

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Europar Batasunari eska diezaion bertan behera uzteko Israelekin Elkartzeko Akordioa eta enbaxadoreari kontsulta egitera dei diezaion, Espainiatik alde egin dezan gonbit egite aldera Gazaren aurkako erasoak eta inbasioak dirauen bitartean.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita Europar Batasunari eska diezaion bertan behera uzteko Israelekin Elkartzeko Akordioa eta enbaxadoreari kontsulta egitera dei diezaion, Espainiatik alde egin dezan gonbit egite aldera Gazaren aurkako erasoak eta inbasioak dirauen bitartean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Bizikidetasun eta Nazioarteko Elkartasun Batzorde Berezian eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, dagokion batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Israelgo Gobernuak, Hamas-en suziriei erantzuteko, Gaza bonbardatu eta inbaditu du, eta horren ondorioz ehunka palestinar erail ditu, horien artean ehun haur baino gehiago, eta beste milaka zauritu ditu. Erantzun hori da hazia, zeinetatik sortuko diren beste 6.000 edo 60.000 pertsona, prest egonen direnak tankeen aurka harriak botatzeko, beren kasa eginiko suziriak egiteko, armak emanen dizkion jendea bilatzeko eta, are anker, dramatikoa eta zentzugabeagoa dena, giza-lehergailu bilakatzeko eta beste populazio zibil errugabe baten aurka jotzeko, inbaditzailea amaitzeko.

Hori ez da bakea lortzeko bidea.

Baliteke zigor krudel hori baliagarria izatea Israelgo arduradunen alderdi faxistenak hauteskundeak irabaz ditzan, baina jada galdu dute gizateriaren gerra globala eta higitzen ari dira histori-koki, naziek eragindako sarraskiaren ondorioz, herri judutarrekin izan den elkartasuna.

Gaur egun, egon behar dugu izututa dauden eta burua galdu duen Gobernu horren ekintzaren aurka dauden herritar judutarrekin.

Jada genozidiotzat hartu den horren aurrean Espainiako Gobernuak orain arte emandako erantzuna ez da ulergarria, ezta onargarria ere. Gaur egun ezin da onartu inbaditzailearen segurtasuna inbadituaren duintasunaren aurretik jartzea. Lehenbizikoeak 60 urte daramatzate bigarren duintasuna urratzen, Estatu Batuen babesarekin eta Europarenarekin, zeinak Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren gainetik jartzen baititu merkataritza-interesak.

Nola uler daiteke, bestela, Israelek sistematikoki urratzea Nazio Batuen Erakundearen deklarazio guztiak, Genevako Konbentzioa edota Europar Batasunak Estatu hebrearekin berriki eginiko Elkartzeko Lehenetsuneko Akordioaren bigarren xedapena?

Asmo onen adierazpenak ez dira nahikoak, indartzen dituzten ekintza zehatzez laguntzen ez badira. Berehalako eta premiazkoa dena da geldiaraztea herri palestinarren inbasioa, heriotza eta sufrimendua. Erabat ezinbestekoa da blokeoa altxa dadila eskatzea, giza laguntza irits dadin, baina horrek ez digu kontzientzia garbitzen. Gazako zerrenda bilakatu den kontzentrazio eremuan bizi diren milioi eta erdi biztanleen izua eta ikara saihestu ahal zitekeen nazioarteko komunitatea ez balitz hain permisiboa izan Israelekin.

Beharrezkoa da Espainia lehena izatea proposatzen Israelekin Elkartzeko Akordioa bertan behera uzteko eta enbaxadoreari kontsulta egitera dei diezaion, Espainiatik alde egin dezan gonbit egite aldera Gazaren aurkako erasoak eta inbasioak dirauen bitartean. Herri bat erailteza agin-

tzen duen gobernu batek ez luke enbaxadorerik izan behar Espainian; izan ere, bertako herritarrek harrizta eta izututa ari da ikusten sarraskia, haren berri bai baitugu, Israelgo agintariek informazioaren blokeoa ezarri duten arren.

Israelekin dugun merkataritza-balantza ia orkatuko 600 milioi euroek ez dute inolaz ere justifikatzen Espainiak giza eskubideak hain era dramatikoan urratzen dituenarekiko agertzen duen adiskidetasuna.

Ezin adiskidetasunik izan halako tiranokeria agertzen duen gobernu batekin, nahiz eta, zorionez, ez duen ordezkutzen Israelgo gizartearen zati garrantzitsu baten sentipena.

Hori dela-eta, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkar-teak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu-a premiatzen du:

- Europar Batasunari eska diezaion bertan behera uzteko Israelekin Elkartzeko Akordioa.
- Israelgo enbaxadoreari kontsulta egitera dei diezaion, Espainiatik alde egin dezan gonbit egite aldera Gazaren aurkako erasoak eta inbasioak dirauen bitartean.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 7an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua, Industria Ministerioa eta Red Eléctrica Española enpresa premiatzen dira lehentasuna eman diezaioten Estellerrian azpiestazio elektriko bat jartzeari.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua, Industria Ministerioa eta Red Eléctrica Española enpresa premiatzen baitira lehentasuna eman diezaioten Estellerrian azpiestazio elektriko bat jartzeari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, zeinaren bidez, Nafarroako Gobernua,

Industria Ministerioa eta Red Eléctrica Española enpresa premiatzen dira lehentasuna eman diezaioten Estellerrian azpiestazio elektriko bat jartzeari, Legebiltzarren Osoko Bilkuran eztabaida eta onets dadin.

Zioen azalpena

Nafarroako garapen ekonomikoa, neurri handi batean, energia-hornikuntzarako aukeren mendean dago. Horretarako, Kalitatearen eta Ingurumen Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiak agiri bat igorri die orain dela gutxi Lizarraldeko zenbait udali, non jasotzen baitzen prestazio handiko línea elektriko bat jartzeko aukera, Gasteizko azpiestazioa eta Muru Artederretako eta Castejóngo azpiestazioak lotzeko. Línea horren mendean egonen dira etorkizuneko azpiegitura garrantzitsuak, gure erkidegorako oinarrikoak direnak.

Hori dela eta, uste dugunez línea elektriko hori aukera ona dela Lizarraldeko garapenerako, zehazki, eta Nafarroaren garapenerako, oro har, eta ezinbestekoa denez proiektu hori egokitzea ingumenari buruzko baldintza zorrotzetara línea igarotzen den tokietan izan daitezkeen eraginek kalterik txikiena sor dezaten, eta ulertzen dugunez azpiegitura hori aukera bat dela, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak berresten du beharrezkoa dela gure erkidegoak modu egokian

konpontzea bizi maila altuak eskatzen dituen energiaren arloko beharrianak, lurraldearen hazkunde sozioekonomikoa bermatze aldera, garapen jasagarri eta jasateko modukoaren parametroak kontuan hartuta, epe labur, ertain eta luzean.

2. Gaur egun, helburu horrek eskatzen du, beharrezkoak diren azterlanak eta hautabideak egin ondoren, Gasteiz-Castejón-Muru Artederreta 400 kW-ko linea eraikitzea, Industria Ministerioren asmoetan aurreikusita baitzegoen Red Eléctrica Española enpresaren bidez eraikitzea. Zalan-tzarik gabe, linea horrek ingurumenean izanen duen eragina saihestezina izanen da, eta, hori dela eta. Nafarroako Parlamentuak Ingurumen Ministerioa eta, zehazki, Kalitatearen eta Ingurumen Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusia premia-

tzen ditu beharrezkoak diren bermeak ezar ditzaten halako obra batek lurraldean izanen duen eragina ahalik eta txikiena izan dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu, Industria Ministerioa eta Red Eléctrica Española empresa premiatzen ditu Gasteiz-Castejón-Muru Artederretako linea egiten den bitartean lehentasuna eman diezaioten azpiestazio elektriko bat jartzeari, bertatik Lizarraldeko energia-hornidura egin ahal izateko eta eskualde horretan arlo horri dagokionez izan ditzaketan beharrianak lehentasunez asetzeko.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da egin beharrezko aldaketak egin ditzan urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuan.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita egin beharrezko aldaketak egin ditzan urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ion Erro Armendáriz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Jakin denez, Nafarroako Gobernuak asmoa du beharrezko neurriak ezartzeko, etxebizitza babes-tua erosteko mailegua eskatu behar duten eskatzaileei etxebizitzaren balioaren ehuneko 20 abaltzeko; izan ere, krisi ekonomikoaren ondorioz, etxebizitza esleitu zaien askok zailtasunak dituzte mailegu hipotekarioa lortzeko, banketxeek ez baitute ematen etxebizitzaren balioaren ehuneko 80 baino gehiago eta maileguak emateko politika dezente gogortu baitute.

Etxebizitzaren erosketara zuzendutako ekimen hori galarazi gabe, esan behar da etxebizitza babestua alokairuan esleitu zaien ere antzeko arazoa izan dezaketela. Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak eta etxebizitzetarako eraikinen sustapena antolatzen dituen urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuaren 18.7 artikuluan aurreikusten da alokairurako egiten diren sustapenetan errentatzaileak berme osagarriak eska ditzakeela kontratua beteko dela ziurtatzeko. Berme horiek ezin izango dute izan errentariarentzat urtebeteko errentari dagokion abala baino kostu handiagoa eta zehaztu beharko dira sustapenaren behin-behineko kalifikaziorako aurkeztu den baremoarekin batera. Halaber, legearen hogeita bigarren xedapen gehigarriaren 7.d.2. idatz-zatian ere –alokairua adjudikatzeko baremoa– aurreikusten da neurri hori.

Etxebizitzari buruzko legeriaren xedeetako bat da alokairua sustatzea herritarrek etxebizitza babestua eskuratzeko modu gisa. Hori dela eta, beharrezkoa da neurriak hartzea aipatu abalak ematea errazte aldera.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiazten du bidezkoak diren aldaketak sar ditzan Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak eta etxebizitzetarako eraikinen sustapena anto-

latzen dituen urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuan, halako moduz non alokairurako sustapen-tan errentatzaileak eska ditzakeen bermeak kasuan kasuko kontratua beteko dela ziurtatzeko ez dezaten izan errentariarentzat hiru hilabeteko errentari dagokion abalaren kostua baino gehi-ago, eta, kasua bada, Gobernuak bere gain har dezan beharrezkoak diren berme osagarriak ematea.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiazten da ezgaitasunen bat duten pertsonentzako sukaldaritza eskolak garatzeko eta hedatzeko plan bat aurkez dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiazten baita ezgaitasunen bat duten pertsonentzako sukaldaritza eskolak garatzeko eta hedatzeko plan bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Oztopo Fisikoei eta Sentsorialeiei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legeak arautzen ditu ezgaitasunen bat duten pertsonak behar bezala integra daitezen jarraitu beharreko irizpideak eta

zehazten du oztopo arkitektoniko eta sentsorialak kentzeko beharrezkoa den araudia. Horretaz gain, martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legeak uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legearen zenbait alderdi zehaztu eta garatzeko xedea zuen.

Ezgaitasunen bat duten pertsonen dagokienez jarraitu beharreko politiken inguruko urteetako hausnarketa, ekintza eta esperientziaren ondoren, erakundeen aldetik beharrezkoa da ondorioztatzea helburua izan behar dela pertsona horiek hobeto integratzea, eta politika horrek oinarrietako bat da lan munduko integrazioa.

Edozein gizarte modernotan, bizitza sozialean eta komunitarioan integratzea eta parte hartzea, helburu bidezkoa ez ezik, pertsona ororen nahia da. Egoera horretan, ingurune fisikorako, komunikaziorako eta lan mundurako irisgarritasuna funtsezkoa da ahalbidetzeko herritar guztiek goza ditzaten oinarritzotzat jotzen diren eskubide batzuk.

Ezgaitasunak dituzten pertsonen aukera berdintasunari buruzko Europar Batasuneko Kontseiluaren eta estatu kideetako gobernuen ordezkarien 1996ko abenduaren 20ko Ebazpenaren arabera, herritar guztien aukera berdintasuna ezin besterenduzko balioa da estatu kide guztietan, eta horrek dakar pertsona horien aurka egiten den bazterkeria negatiboa deuseztatzea eta haien bizi kalitatea hobetzea, eta estatu kideei aukera ematea aipatu helburua lortzeko beharrezkoak diren araudiak emateko, gizartearen baliabideek ahalbidetzen duten heinean.

Esandakoari jarraikiz, 2008ko aurrekontuei aurkeztutako zuzenketa bat onetsi zen, azterlan bat egin zedin, zeinak ahalbidetuko baitzuen ezgaitasunen bat duten pertsonentzako sukaldaritza eskolak ezartzeko eta horren ondorioz gizarte jangela mantentzeko.

Proposamen egokia izan zen eta beharrezkoa da aintzat hartzen jarraitzea; izan ere, tresna garrantzitsua izan liteke, nabarmendu den moduan, ezgaitasunen bat duten pertsonak integratzeko eta lanerako prestatzeko ez ezik, bai eta zailtasun sozialak dituzten pertsonentzako prestazio bat emateko ere.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean aurkez dezan ezgaitasunen bat duten pertsonentzako sukaldaritza eskolak garatzeko eta hedatzeko eta gizarte jangela mantentzeko plan bat.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ausardiaz lan egin dezaten jangela sozialak jartzeko beharrezkoak diren urratsak egin edo eginen dituzten erakunde publikoekin.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekin lankidetzan jardun dezan nerabeen nahi gabeko haurdunaldiei eta sexu-transmisiozko gaixotasunei aurrea hartzeko kanpainan, zeina Osasun eta Kontsumo Ministerioak abiatu baitu.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernuarekin lankidetzan jardun dezan nerabeen nahi gabeko haurdunaldiei eta sexu-transmisiozko gaixotasunei aurrea hartzeko kanpainan, zeina Osasun eta Kontsumo Ministerioak abiatu baitu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu

du. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekin lankidetzan jardun dezan nerabeen nahi gabeko haurdunaldiei eta sexu-transmisiozko gaixotasunei aurrea hartzeko kanpainan, zeina Osasun eta Kontsumo Ministerioak abiatu baitu.

Zioen azalpena

Planifikatu gabeko amatasuna eta haurdunaldien borondatezko eteteak errealitate bat dira gure herrialdean. Ez dira egoera desiragarriak eta bereziki kezkarriak dira jasaten dituztenak nerabeak direnean.

Espanian, gazteak gero eta lehenago hasten dira sexu-harremanak izaten. Osasunaren Mundu Erakundeak Osasun eta Kontsumo Ministerioarekin lankidetzan egin duen 2006ko Osasunarekin loturiko ikasleen jarrerari buruzko ikerketako (Health Behaviour in School-aged Children) Espainiari buruzko datuen arabera, Espainiako neska-mutilek 16 urte bete baino lehenago izaten dute beren lehenengo sexu-harremana (15,59 urterekin mutilek eta 15,62 urterekin neskek).

Gainera, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren arabera, 2007an 18 urtez beherako 11.000 neska baino gehiago gertu ziren haurdun Espainian, eta horietatik 7.000 baino gehiagok haurdunaldia eten

zuten. Horrek esan nahi du nahita etendako gazteen eta nerabeen haurdunaldien kopuruak % 17 egin duela gora azken urtean, eta azken hamar urteotan 18 urtez beherako nesken haurdunaldien kopurua bikoiztu egin dela; izan ere, 1997an % 3,07koa zen eta iragan urtean, berriz, % 6,3koa.

Bestalde, hainbat azterlanek agerian utzi dute zein lotura duen nerabeen haurdunaldi kopuruaren eta etendako haurdunaldien kopuruaren beherakadak sexu-hezkuntza planak eta preserbatiboak koito ondoko pilula bezalako antisorgailuak esku-ragarri izateko politikak abian jartzearekin.

Hori dela eta, premiazkotzat jotzen da zenbait jarduera berehala abian jartzea, sexu-hezkuntzari buruzko estrategia orokor baten barruan, nerabeek neurri babesgarririk hartu gabe izaten dituzten sexu-harreman osoen ondorio kaltegarriak geldiarazte aldera.

Betiere, jakinda eta ulertuta adin horretan sexu-harremanak izatea naturaltasunez hartzen dela eta eguneroko bizitzaren zati dela, Espainian beste garai batzuetan gertatzen ez zen bezala.

Hala egin du Osasun eta Kontsumo Ministerioak, eta prebentzioari eta sexu-hezkuntzari buruzko

kanpaina zabal bat jarri du abian nerabeen artean. Kanpainaren helburua da nahi gabeko haurdunaldiei eta sexu-transmisiozko gaixotasunei aurrea hartzea, informazio egoki eta irisgarria ematearen bidez, neska-mutilei ahalbidetzeko era arduratsuan hauta dezaten beren sexualitatea modu seguruean garatzeko jokamoldea.

Horregatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du Espainiako Gobernuarekin lan-kidetzan jardun dezan nerabeen nahi gabeko haurdunaldiei eta sexu-transmisiozko gaixotasunei aurrea hartzeko kanpainan, eta indar ditzan antisorgailuen arloko zerbitzuen eta prestazioen politikak, nahi gabeko haurdunaldiei eta, horrenbestez, haurdunaldiak eteteari, aurre hartzeko sistema gisa. Eta, bereziki, Osasun eta Kontsumo Ministerioak nerabeen nahi gabeko haurdunaldien kopurua murrizteko abian jarritako kanpaina sustatzen eta zabaltzen lagun dezan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri taxutu eta antola ditzan, irakasleen hasierako prestakuntza bat etortze aldera egungo nahiz etorkizuneko hezkuntza sistemaren eta gizartearen beharrezanekin eta erronkekin.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zenbait neurri taxutu eta antola ditzan, irakasleen hasierako prestakuntza bat etortze aldera egungo nahiz etorkizuneko hezkuntza sistemaren eta gizartearen beharrezanekin eta erronkekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, zeinaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri taxutu eta antola ditzan, irakasleen hasierako prestakuntza bat etortze aldera egungo nahiz etorkizuneko hezkuntza sistemaren eta gizartearen beharrezanekin eta erronkekin.

Zioen azalpena

Hezkuntzak munduan duen egoerari buruzko nazioarteko ikerketa eta txostenen emaitzek hainbat eztabaida eta desadostasun sortu dituzte gaitzen inguruan; alegia, zeintzuk diren pisu espezifiko handiena duten faktoreak emaitza onenak lortzeko hezkuntza-sistemaren kalitateari eta herritarren prestakuntzari dagokienez.

Egia da herrialde bakoitzaren kulturak, gizarte bakoitzaren hezkuntza arloko historiak edota balioek eta antolamendu sozialak garrantzi handia dutela hezkuntza-ereduen konfigurazioan, eta

zaila izanzen litzatekeela herrialde bateko esperientziak beste batean mimetikoki aplikatzea. Hala ere, badira jarraitasun ildo batzuk adierazten dutenak zenbait faktore errepikatu egiten direla emaitza hobekia lortzen dituzten eta azken urteotan arreta berezia jarri duten herrialdeetan. Zehazki, irakasleen prestakuntza nabarmentzen da hezkuntza-sistemak hobetzeko faktore funtsezkoen gisa, irakasleak baitira hezkuntza-sistemaren bizkarreko hezurra.

Gaur egun eskolak ematen dituzten irakasle gehienak ikastetxe batean hasi ziren lanean noizbait. Garai hartan irakasgai bati buruzko prestakuntza sendoa izanzen zuten, baina baita ikastetxe edo institutu bateko bizitza errealari buruzko ezagutza urria ere, eta horrek, hain zuzen, eskatzen du gaitasun, beharrezan eta interes desberdinak dituzten ikasleekin lan egitea, familiekiko bilerak taxutzea, gurasoei aholkuak ematea, irakasleekin elkarlanean aritzea, eta, askotan, kudeaketa eta zuzendaritza lanak egitea. Horrenbestez, gure ikastetxeetan lan egiten duten irakasle gehienek praktikaren bidez ikasi dute, senak eta lan onak lagunduta. Gizartea eraldatzen doan heinean irakasleen eginkizuna ere aldatzen ari da, eta, horren ondorioz, bidezkoa dirudi hasierako prestakuntza eta prestakuntza etengabea egokitzea gizartearen eta irakasleen eskakizun eta beharrezan berrietara.

Gure hezkuntza sistema ez-unibertsitarioaren –lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza– zati handiena oinarrizko edo derrigorrezko hezkuntzari dagokio, zeina ezinbesteko lorpen soziala baita edozein herrialde garatutan, eta pertsona guztientzat bermatzen baititu beren potentzialtasunak ahalik eta gehien garatzeko baliabideak. Soilik batxilergoa eta lanbide heziketa ez dira derrigorrezko etapak. Hala ere, zenbait erakunde nazional eta nazioartekok garrantzi handia ematen diote ikasle guztiek bigarren hezkuntzako bigarren zikloa egiteari, eta horrek dakar hezkuntza etapa ez-unibertsitarioek herritar guztiak dituztela balizko hezigai. Horrek eskatzen du irakasle berriek beharrezkoak diren gaitasunak eskuratzea, denon eta ez soilik batzuen heziketaren konplexutasunari aurre egin ahal izateko, errealitate soziala asko aldatu baita.

Hezkuntzari buruzko Legeak eta Europako goi mailako hezkuntza-guneak ezarriak dituzte irakas-

leen prestakuntzak jarraitu beharreko ildoak. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren III. tituluko II. kapituluaren ezartzen da irakasle-lanbideak lanbide arautuak direla, eta 92. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen dira horietako bakoitzean jarduteko beharrezkoak diren titulazio-betekizunak.

Gainera, Hezkuntzari buruko Legearen araututako irakaskuntzetako irakasleen hasierako prestakuntza egokituta egon behar da Europako goi mailako hezkuntza-guneko graduaren eta graduondokoen sistemara. Unibertsitatearen antolamendu berriari jarraikiz, haur hezkuntzan edo lehen hezkuntzan maisu lana egiteko derrigorrezkoa izanen da kasuan kasuko graduaren titulua eskuratzea, eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako edo Hizkuntza Eskolako irakasle izateko derrigorrezkoa izanen da bigarren hezkuntzako graduondokoa izatea.

Lege organiko berean, 100.3 artikuluan, aipatzen da hezkuntza arloko administrazioei dagokien beharrezkoak diren hitzarmenak egitea unibertsitateekin, irakasleen prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa antolatze aldera. Horrek esan nahi du foru administrazioak, oinarrizko araudian ezarritako baldintzak beteta eta kontuan hartuta unibertsitatearen autonomiaren printzipioak, diseinatu eta ezar ditzakeela, Unibertsitate Publikoarekin lankidetzan, interesgarriak iruditzen zaizkion neurriak, irakasleen hasierako prestakuntzak erantzun diezaien hezkuntza-sistemaren eta etorkizuneko gizartearen erronkei eta beharrezane.

Osagai garrantzitsu bat da irakasleen lanbideari zaion errespetua eta ematen zaion balioa. Irakaskuntza bokaziozko lanbide bat da, eta beharrezkoa da laneko asetze-maila handia izatea. Irakasleek sentitu behar dute lanbide errespetatu eta baloratu bat osatzen dutela; nortasun profesionala, izan ere, sumatzen den begirune sozialaren arabera izaten da. Beren lanean mailarik altuena emanen duten pertsonak erakartze aldera, beharrezkoa da begirune sozial, estatus eta lanari egokiak izatea. Irakasle berriek, adibidez, adierazten dute ikerketa askotan lanbidearen estatusa pizgarria dela hobetzeko eta gehiago inplikatzeko.

Nafarroa erkidego txikia da, eta bertan garatu ahal dira irakasleen prestakuntzaren arloan aitzindariak izatea ahalbidetuko diguten berrikuntza proiektuak. Sistema berria ez dago oraindik abian; hori dela eta, garaiz gaude oraindik eskura ditugun aukerak zehazteko, irakasleen hasierako prestakuntza-sistema bikaina izan dezagun.

Europako Parlamentuak "Irakasleen prestakuntzaren kalitatea hobetzeari" buruz onetsitako txoste-

nean adierazitakoari jarraikiz, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Haur, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxe-sare bat diseinatzea, non arreta berezia ematen zaion karrera hasten duten irakasleen hasierako prestakuntzari eta laneratzeari. Ikastetxe horiek izanen lituzkete lan garrantzitsu hori garatzeko prestatutako hezkuntza-proiektuak, zuzendaritza-taldeak eta irakasle-taldeak. Esperientzia gehiago eta gaitasun frogatua duten irakasleek eginkizun garrantzitsua izan dezakete irakasle berrien prestakuntzan, eta eginkizun hori pizgarrien bidez aitortu behar zaie, hala nola irakastorduen zama murriztea lan horietaz arduratzeko, unibertsitatea irakasleen prestakuntzan inplikatzeko eta merezimenduak aitortzea.

2. Beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea hasierako prestakuntzara sartzekoan eta gradu-ko eta graduondoko ikasketetan zehar, irakasleek, beren ikasketak amaitzean, C1 maila lor dezaten atzerriko hizkuntzetan. Lisboako helburuak eta Europako Parlamentuaren erabakiak behin eta berriro azpimarratzen dute beharrezkoa dela estatu kide guztietan irakasleek egiaztatzea gutxienez atzerriko hizkuntza bat dakitela, txiki-txikitik atzerriko hizkuntzen ikaskuntza sendotze aldera.

3. Irakasleen prestakuntzan arreta berezia eskaintzea informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien irakaskuntzari. Teknologia berriek haurren eta nerabeen bizimodu naturalaren zati dira: aro digitalean jaiok dira eta irakasleek prest egon behar dute erronka horri aurre egiteko. Prestakuntzak errealitate sozial hori aintzat hartu behar du, teknologia berriak berrikuntzarako eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko aukera eta erronka izan daitezela.

4. Irakasleekiko errespetua eta begirunea eta haien estatusaren maila handitzeko neurriak ezartzea, besteak beste, honakoak: berariazko baldintzak ezartzea maisu gradua eta graduondokoa eskuratzeko edota irakasleen lanbidean sartzeko; irakasleek aginte gehiago izatea ikastetxeetan; promozio horizontala eta tutoretzat egiteko pizgarriak, zuzendaritza-taldearen erantzukizuna eta ikasgelen berrikuntzak.

5. Hitzarmenak egitea Europar Batasuneko herrialdeetako ikastetxeekin eta Europako eta beste autonomia erkidego batzuetako ikastetxeekin trukerako programetan parte-hartzea sustatu eta zabaltzea.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legezko ekintzak eta neurriak abian jar ditzan 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloan unibertsaltasuna, doakotasuna, kudeaketa eta Hezkuntza Departamentuaren finantzaketa bermatzeko.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita legezko ekintzak eta neurriak abian jar ditzan 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloan unibertsaltasuna, doakotasuna, kudeaketa eta Hezkuntza Departamentuaren finantzaketa bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

0tik 6 urtera bitarteko haur hezkuntzako etapa bateratua arautzen duen Hezkuntzari buruzko Lege Organikoko 12. artikulua ezartzen du etapa hori hezkuntza-etapa dela, Unescoren Nazioarteko Batzordeak eginiko gomendioei eta Haurren Eskubideen Konbentzioari jarraikiz.

Hona hemen hezkuntzarako eskubidearen oinarritzko printzipioak:

1.- Benetako herritarrak izateko, haurrak haurtzat hartu behar dituzte helduek beren bizitzako lehen egunetik.

2.- Gainera, kontuan hartu behar da bizitzako lehenbiziko urteen garrantzia, funtsezkoak baitira pertsonaren ondorengo garapenerako.

3.- Hezkuntza ulertu behar da bizitza osoan zehar gauzatzen den prozesu jarraitu gisa.

4.- Eskolaren lau oinarriak dira ezagutzen ikastea, egiten ikastea, izaten ikastea eta elkarrekin bizi-tzen ikastea.

Horrenbestez, hezkuntzarako eskubidea, 0-3 zikloan, ondoko kontzeptuetan oinarritu behar da:

1.- Hezkuntza publiko eta unibertsala beharko luke izan, ez dadin bereizkeriarik gerta zerbitzu hori jasotzeko eskubidea gauzatzean, ez eremu geografikoaren, ez familiaren egoera ekonomikoaren erruz.

2.- Doakoa izan beharko luke; izan ere, hezkuntza-zikloa izanik, beharrezkoa da doan ezartzea.

3.- Kudeaketari eta finantzaketari dagokienez, ikusirik gure erkidegoan eredu desberdinak daudela –haur eskolak, haurtzaindegiak, familien laguntza ordainezina–, ziklo hori Foru Gobernuak kudeatu eta finantzatu beharko luke bere osotasunean. Esparru hori, gaur egun gurasoek, toki entitateek eta Gobernuak berak finantzatuta dagoena, arautu egin behar da ikastetxeen baldintzei, langileei eta hezkuntza-erakundeentzako dagokienez, eta araudi bera aplikatu behar zaie ikastetxe guztiei.

4.- Hizkuntza eredu hautatzeko askatasuna beharko litzateke. Gure erkidegoan bi hizkuntza ofizial daudenez, eskaintzak hizkuntza askatasunerako aukera eman behar du, familiek euren seme-alabentzako nahi duten hizkuntza eredu hautatu ahal izan dezaten ziklo horretan.

Hortaz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, gure gizartearen egun dauden eskari horiek jasoko dituen plan bat abian jartze aldera eta arestian azaldutako printzipioen garrantzia kontuan hartuz, ondoko erabaki proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozka dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren ekintzak eta neurriak abian jar ditzan, bermatzeko 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloa unibertsala eta doakoa izan delako, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak kudeatu eta finantzatu duela eta bi urteko epean gure erkidegoan diren bi hizkuntza ofizialak eskainiko direla.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte-intereseko entitateen kontratazioa errazteko formulak aplikatu dituzan, ezgaitasunen bat duten pertsonen nahiz gizarte bazterkeriako egoeran dauden pertsonen enplegua mantentze aldera.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte-intereseko entitateen kontratazioa errazteko formulak aplikatu dituzan, ezgaitasunen bat duten pertsonen nahiz gizarte bazterkeriako egoeran dauden pertsonen enplegua mantentze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte-intereseko edo irabazi asmorik gabeko entitateen –esaterako, enplegu zentro bereziak edo laneratze zentroak– kontratazioa errazteko formula guztiak ahalik eta modu zabalenean interpretatu eta aplikatu dituzan, eta kontratazioarako baldintza-orrietan beharrezkoak diren lizitazio- eta baremazio-klausulak jarri dituzan, ezgaitasunen bat duten pertsonen nahiz gizarte bazterkeriako egoeran dauden pertsonen enplegua mantentze aldera.

Zioen azalpena

Administrazio publikoek enpleguaren sorrera sustatzeko abian jarritako politikak jardura publikoaren osagai funtsezkoak izan dira. Nafarroako Foru Komunitatea berezia da; izan ere, azken urteotan hiru enplegu plan sinatu dira, eta, dirudienez, argitaraturiko informazioen arabera, eragile

ekonomikoek, sindikatuak eta Gobernuak laster sinatuko da Nafarroako 4. Enplegu Plana.

Horrenbestez, lanpostu berriak sortzea ezinbestekoa da, eta ez du garrantzi gutxiago dauden lanpostuak mantentzeak, eta funtsezko helburu horren barruan sartzen da, gardenki eta zailtasun handiagoz, enplegu berezia esaten zaiona; hau da, ezgaitasunen bat duten edota bazterkeria soziala jasaten duten pertsonak betetzen duten enplegua, nahiz eta horiek Nafarroako gainerako langileen eskubide berak izan gutxienez.

Enplegu hori, gure foru erkidegoan, interes sozialeko edota irabazi asmorik gabeko entitateek sortzen dute, eta arriskua du krisi ekonomikoaren ondorioak neurri handiagoan pairatzeko eta, horrenbestez, lanpostu gehiago suntsitzeko joera izatea. Etorrizuneko egoera horren adibide bat da Aspace Navarra fundazioak enpleguari buruz egindako adierazpenak.

Horrenbestez, egoerak eragina du jada entitate horiengan; batzuen egoera besteena baino larriagoa izanen da, baina, azkenean, gehiago edo gutxiago, denak pairatuko dituzte antzeko ondorioak.

Hori dela eta, beharrezkoa eta egokia dirudi behintzat administrazio publikoek aplikatu dituzten aipatu eragina geldiarazteko edo txikiagotzeko balio duten neurri guztiak, eta, hala, gaur egungo egoerak elkarte horien enplegu mantentzeko dakartzan zailtasunak arintzeko.

Duela gutxi, Parlamentuan proposatu da Kontratuari buruzko Foru Legearen zenbait alderdi aldatzea. Aldaketa horiek bat datoz mozio honen xedearekin eta Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatuko dira heldu den bilkuraldian, dagokion batzordeak jada eman baitu aldaketa horiei buruzko irizpena.

Gure ustez, orain arte aplikaturiko filosofiari eutsiz, lan tresnak emanez lagundu behar da, hau da, baliabideak eta babesa eman behar da, dirulaguntzak baino gehiago, eta, horren haritik, administrazio publikoek, mankomunitateek, udalek eta, bereziki, Nafarroako Gobernuak, zenbait klausula sartu ahalik eta beharko litzukete lehiaketa eta kontratuak lizitatzeko baldintza-orrietan, ahalbide-

tzeko, kasu bakoitzari aplikagarri zaion lege-esparruaren barruan, lanak eta zerbitzuak kontratatze-ko ezgaitasunen bat duten pertsonen nahiz gizarte bazterkeria pairatzen duten pertsonak lanerako hartzen dituzten irabazi asmorik gabeko eta gizarte-intereseko enplegu zentro bereziak edo laneratze zentro horiekin.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozioa aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarte-intereseko edo irabazi

asmorik gabeko entitateen –esaterako, enplegu zentro bereziak edo laneratze zentroak– kontratazioa errazteko formula guztiak ahalik eta modu zabalenean interpretatu eta aplikatu ditzan, eta kontratazio-rako baldintza-errietan beharrezkoak diren lizitazio- eta baremazio-klausulak jar ditzan, ezgaitasunen bat duten pertsonen nahiz gizarte bazterkeriako egoeran dauden pertsonen enplegua mantentze aldera.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta beste zenbait erakunde premiatzen ditu aintzat har ditzaten enpleguko zentro bereziak kontratazioak egiterakoan.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK ETA IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak eta Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta beste zenbait erakunde premiatzen baititu aintzat har ditzaten enpleguko zentro bereziak kontratazioak egiterakoan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Ana Figueras Castellano eta Ioseba Eceolaza Latorre foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, dagokion batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako enplegu zentro berezien egoera kritikoa da eta premiazkoa da administrazioaren esku-hartzea, gaur egun duten lan falta egoera ahal den neurrian arintzeko eta aldatzeko.

Gehienetan eta salbuespen gutxirekin, enplegu zentro bereziek lortu dute, zailtasunak zailtasun,

ezgaitasunen bat duten pertsonen lanbideak dibertsifikatzea, ohiko enpresek soberan dituzten lanak egiten baitituzte. Ohiko lanen zati bat kanpora ateratzen zuten enpresa horiek, gaur egungo krisi egoeran, soberan zituzten lan horiek kanpora atera ez eta beraiek egiten hasi dira berriro.

Gure ustez, enpresa horien ezaugarria denez ez dutela soilik lan okupazionala egiten, baizik eta gure gizartearen zati baten sozializazioaz eta hezkuntzaz ere arduratzen direla, Nafarroako Gobernuak lehenbailehen bilatu behar du konponbidea, langileen erosteko ahalmena eta, bereziki, enplegua, ziurtatzeko eta enpresa horiek langile horiei lanpostu bat ematerakoan egiten duten lan garrantzitsuarekin jarrai dezaten.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berma ditzan, dagokion kontusaila handituta, enplegagarritasun zaileko pertsonen jasozen duten defizitari buruzko laguntzak, 2009an eta 2010ean lanpostuko 3.000 eurora iritsi arte.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ezgaitasunen bat duten pertsonen buruzko legezko erreserba (50 langile baino gehiagoko enpresetan, % 2) betetzea eska dezan.

Nafarroako Parlamentuak dei egiten die Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta udal eta erakunde publiko guztiei, ahalegina egin dezaten kontratuak egin behar dituztenean eta kontuan har ditzaten enplegu zentro bereziak.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentariak: Ana Figueras Castellano eta Ioseba Eceolaza Latorre

Adierazpen instituzionala, Kolonbiako mugimendu indigenen eta sindikalen aurkako errepresioari buruzkoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Ikusirik iragan urriaren 12an Kolonbiako zenbait departamentutan indigenen manifestazioen aurka erabilitako errepresioa, zeinak gutxienez 27 indigenen heriotza, zenbait desagertu eta zauritu ugari eragin dituen, eta iragan irailean azukre-kanabera moztaileren mugimendu sindikalaren aurkako errepresioa, barne-barneko haserrea adierazi nahi dugu zigorrik jaso gabe geratu ezin diren indigenen eta sindikatuen eskubideen urraketa larri horren aurrean:

1.- Nafarroako Parlamentuaren ustez, garrantzitsua da aurrera egitea Kolonbiako herri indigenen eskubideen aitortzan, bai eta bertan dauden

102 etnien –horietatik 18 desagertzeko zorian daude– biziraupenaren defentsan eta baliabide naturalen ustiapen bereizi gabea geldiarazteko lanean ere. Halaber, aitortzen dugu azukre-kanabera moztailerek lan duin baten alde eginiko aldarrikapenen zilegitasuna.

2.- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuarekin bitartekotza egin dezan Kolonbiako Gobernuarekin konponbide baketsua bilatze aldera, mugimendu indigenaren eta sindikalaren errespetu osotik abiatuta.

3.- Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du mobilizazioak behatzen ari ziren Europako hiru herritar arrazoirik gabe kanporatu izana.”

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 28a

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

